

# Euskadiko CCOO genero indarkeriaren aurka

Astelehenean 11:00ean Bilbon, Pio Barojan, elkarretaratzea eta performance-a

*Gizarte murrizketa gehiago = emakumeen aurkako indarkeria handiagoa.*

**EUSKADIKO** langile Komisioak Sindikatuko Konfederazio Sindikalak, azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, edozein eratako indarkeria matxista gaitzesten duela agertzen du, fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekomomikoa dela. Laztasuna izugarria da mundu osoan, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunik ezaren ondorioz ematen da eta giza eskubideen eta oinarriko askatasunen aurkako eraso larria suposatzen du.

Azaroaren 25 honetan, CCOO berriz ere, beren bikotekide edo bikotekide ohien eskuetan hilda suertatu diren emakumeen erailketa guztiak saltatzen ditu eta administrazio, erakunde eta gizartearen beraren konpromiso handiagoa eta eraginkorragoa eskatzen du gizarte estigma honekin bukatzeko. Emakumeen aurkako indarkeria hau gazteengan ere ematen da, gora egin du bikote gazteen artean. Adingabeen fiskaltzak agertu du 15 eta 17 urte arteko nerabengana hazi egin direla genero indarkeriagatik kausa judizialak. Era berean, Botere Judizialaren Batzorde Orokorren Genero Indarkeriaren Behatokiaren datuak kezagarriak dira, 2012 urtean 128.592 salaketa ezarri ziren, aurreko urtean baino %4 gutxiago eta horietako 15.000 baino gehiago (%12,13) erretiratu egin ziren, datu horrek agerian uzten du krisiak baldintzak okertu egin dituela indarkeria matxistaren biktimek justiziara jo ahal izateko.


CCOotik, herritarrentzako hezkuntza ikasgaia kendu izana eta Wert Lege erregresiboa onartzearekiko aurkakotasuna agertu nahi dugu, estereotipo sexista eta genero indarkeriaren aurkako hezkuntzan beharrezkoak diren aldaketetan atzera pausoa baitira, are

gehiago gazteengan emakumeen aurkako indarkeria era kezagarrian hazi denean.

Salatu nahi dugu indarkeriaren biktimekiko babesa eta laguntza une honetan ez dela Gobernuaren lehentasunetako bat eta uste dugu genero indarkeria ezabatzeko ahalegin eta neurriak ezin direla herrialde baten gorabehera ekonomikoaren menpean jarri. Gizartean dugun arazo larri honi aurre egiteko beharrezkoa da baliabideen inbertsioan ahalegin ekonomikoa berreskuratu eta handitzea.

Era berean, pertsonen lan eta bizi baldintzak prekarizatzen dituen gobernu politikaren porrotaren ondorio kaltegarriak saltatzen ditugu. Desberdintasun eta pobrezia poltsak handitzen baititu eta era bikoitzean eragiten du horrek emakumeengan, familien Kargak eta dependenziarekiko arreta bereganatzeagatik kalteak. Egoera honek atzera pausu larria eragiten du beren autonomia eta independentzia ekonomikoan, ezinbesteko estrategia indarkeria egoeretatik atera ahal izateko, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren txosten batek agertzen duen moduan, "indarkeria ekonomikoa biktima jasan behar duen presio faktore bat gehiago da".

CCOorentzat, emakumeen independentzia ekonomikoa indarkeriaren zulotik ateratzeko faktore gakoa da. Horregatik, genero indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratzen laguntzeko eta lan esparruan



sartzeko ekintza espezifikoko Programa garatu eta sustatzea eskatzen dugu, baita lan esparruan aplikatzen diren neurriek duten eragina ebaluatzeko oinarriko informazio estatistikoa eta analisi handiagoa.

Emakumeen sexu eta ugalketa osasunaren gainean erabakitzea emakumeen aurkako indarkeria da baita ere. CCOOtik indarrean dagoen sexu eta ugalketa-osasuna eta haurdunaldiaren etete boluntarioaren Legea babesten dugu eta Justizia ministroak jakinarazi dituen arau aldaketaren aurkako jarrera agertu nahi dugu. Jarrera ideologiko hipokriten bitartez emakumeen erakunde eta elkarrean aldarrikapenei esker lortutako eskubideak desegitea eragin baititzake. Nazio Batuen Erakundeak egunero haurdunaldia, erditzea edo arriskupean egindako abortuak direla eta 800 emakume inguru hiltzen direla salatu du duela gutxi.